

1989ko Azaroan egindako neurketaren lehen emaitzak. Datuei dagokienez, zenbaki hartan argitaraturiko guztiak hemen ere aurkituko dituzuen arren, orduan emandako metodologia-argibide guztiak ez ditugu hemen errepikatuko. Bi artikulua osagarriak dira zentzu horretan.

Euskararen kale-erabilpenaren neurketa 10.000 biztanletik gorako herrietan

Aldizkari honen beronen aurreko zenbakian aurreratu genituen EKBk 1989ko Azaroan egindako neurketaren lehen emaitzak. Datuei dagokienez, zenbaki hartan argitaraturiko guztiak hemen ere aurkituko dituzuen arren, orduan emandako metodologia-argibide guztiak ez ditugu hemen errepikatuko. Bi artikulua osagarriak dira zentzu horretan.

Oraingoan datu guztiak dakartzagu atal desberdinetan jasorik: Euskal Herri mailan, herriz-herri, Hego Euskal Herri mailan, herrialdeka, herri-tamainaka, euskararen ezagutza-tasaren arabera multzotan eta ezagutza eta tamaina erizpideak gurutzatuz sortzen diren tipologiatan.

*«Guztira
329.860 lagun
izan dira
neurtuak, 10.000
biztanletik
gorako herri
guztien arteko
biztanleria
osoaren %
16,41eko batez
bestekoa beraz»*

«Datu-aula
guztiak 10.000tik
gorako
hegoaldeko herri
guztiak kontutan
hartuz osatu
ditugu, baina
Ipar Euskal
Herriari
dagokionez
Baiona,
Donibane
Lohitzune eta
Hendaia besterik
ez»

Herriz herriko emaitzetan, gainera, neurketa egin zuten 10.000 biztanletik beherako zenbait udalerritako emaitzak ere argitaratu ditugu. Aurreko zenbakian Euskal Herri, herrialde, herri-tamaina eta euskararen ezagutza-tasaren araberrako multzoak agertu ziren. Oraingoan, taula horiek osaturik dakartzagu adinez adineko ezagutza datuekin eta ezagutza eta erabilpena portzentaien arteko indizea eta guzti. Orduko tauletatik hemengoetara aldaketarik badago neurtu ez ziren baina proiektzioen bidez erabili ditugun Burlata, Leioa, eta Tafalla herrietako datuak ere barne direlako izango da gehienetan, nahiz eta bakarren batean akatsen zuzenketa dela medio izan den. Kasu guztietarako, beraz, hemengo datuak hobetsi behar dira.

Bigarren zenbakian adierazi genuen moduan, 10.000 biztanletik gorako hiru herri horietaz gain (Burlata, Leioa eta Tafalla), Miarritzen ere ez zen neurketarik egin ahal izan. Angelun neurketa egin zen arren bertako emaitzak ez dira kontutan hartuak izan, kalean oso jende gutxi ibili ohi denez jasotako datuak biztanlegoaren osotasunera estrapolatu ahal izateko eskasegiak zirelako. Hegoaldeko hiru herri horiei beren tipologiako portzentaiak ezarri dizkiegu, duten biztanle kopuruaren arabera estrapolazioak eginez tipologia bakoitzaren pisu espezifikoak kontutan hartu ahal izateko. Iparraldean, emaitzarik ez dugun 10.000 biztanletik gorako bi herri horiei (Angelu eta Miarritze) ez dizkiegu beren tipologiako datuak ezarri, nahiko bereziak direlako. Ondoren doazen datu-aula guztiak, beraz, 10.000tik gorako hegoaldeko herri guztiak kontutan hartuz osatu ditugu, baina Ipar Euskal Herriari dagokionez Baiona, Donibane Lohitzune eta Hendaia besterik ez.

Euskararen erabilpenaren portzentaiak kalean biztanle guztiek hitz egiten dutenarekikoak dira, eta ez herri edo multzo bakoitzeko euskaldunen totalaren araberrakoak. Erabilpenaren portzentaien ondoan ia beti jarri ditugu dagozkien herri edo multzoko euskaldunen portzentaiak. Euskaldunen portzentaiak hauek ere, bistan da, biztanle-go guztia rekikoak dira, eta udal-eroldan 'euskaldun' gisa datozenak soilik hartu dira kontutan; 'ia-euskaldunak' ez ditugu aintzat hartu zenbaki honetan bertan Xabier Isasik defendatzen duen tesiari jarraiki. Bestalde, kontutan izan behar da, Ipar Euskal Herriko herrien

kasuan ez dagoela adin-taldekako euskaldunen portzentaien daturik; totalak besterik ez dauzkagu, eta gainera dauzkagun horiek Pedro de Yrizarrek 1972an bildutakoak dira. Besterik ezean horietxek ekarri ditugu hona. Esan dezagun, azkenik, Baionaren kasuan euskararen ezagutzaren portzentaia orokorra ere ez dela ezagutzen, baina ez dirudi inongo kasutan % 10ekoa baino haundiagoa izan daitekeenik.

Euskaldunen portzentaia ezagutzen diren herri edo ataletan euskararen ezagutzaren eta erabilpenaren arteko indizea ere atera dugu. Multzoren batzutan, taula bat osatu dugu Ipar Euskal Herriko herrietako emaitzak barne direlarik, baina adin-taldeetako indizeak eman ezinez —totalak soilik—, eta beste bat Iparraldeko herrien daturik gabe, baina adinez-adineko indizea eta guzti.

Neurketaren metodologia

Azpirarra dezagun, lehenik eta behin, eskuartearen dauzkagun datuak ez direla inkesta baten fruitu, neurketa batenak baizik. Aurreko zenbakian argitaraturikoaren ondoren hainbatek oker ulertu duenez, garrantzitsua da azaltzea neurketa egin dutenak horixe zirela hain zuzen ere, neurtzaileak, eta ez inkestalariak. Kalean jendeak hitz egiten zuen hizkuntza *entzun eta apuntatu* egiten zuten eta inongo kasutan ez zaio jendeari *galdetu* ea zein hizkuntzaz hitz egin ohi duen. Horrelako 500dik gora neurtzaile izan ziren Euskal Herri guztian, EKBosatzen duten euskal kultur munduko talde, elkarte eta erakundeetako partaideak gehienak. Neurtzaile guzti horiek bikoteka aritu ziren lanean: bikote bat hamar mila biztanleko, bigarrena 15.000 biztanletik gora, hirugarrena 25.000tik gora, etabar.

Neurketa 1989ko Azaroaren 8 (asteazkena) eta 11n (larunbata) egin zen. Herriren batetan ohizkoa den hizkuntz egoera alda lezakeen faktorerik egon bazen —azoka, euskal musikaren jaialdiren bat, kanpoko jende kopuru pila bat erakarriko zuen ekintzarik,...— neurketa egunak aurreko edo ondoko asteke asteazken eta larunbata izan ziren, salbuespen gisa. Neurketa orduak,

«Ipar Euskal Herriko herrien kasuan ez dago adin-taldekako euskaldunen portzentaien daturik; totalak besterik ez dauzkagu, eta gainera dauzkagun horiek Pedro de Yrizarrek 1972an bildutakoak dira»

*«Datuok ez
direla inkesta
baten fruitu,
neurketa batenak
baizik Kalean
jendeak hitz egin
da hizkuntza
entzun eta
apuntatu egiten
zuten eta inongo
kasutan ez zaio
jendeari galdetu
ea zein
hizkuntzaz hitz
egin ohi duen»*

asteazkenerako arratsaldeko 6etatik 8ak bitarte izan ziren Hego Euskal Herrian eta 4 edo 5etatik 6 edo 7ak arte Iparraldean. Larunbata goizez, Hegoaldean goizeko 11etatik ordu bata bitartean eta Iparraldean 10etatik eguerdirarte. Larunbata arratsaldeaz asteazkeneko ordu berberetan egin zen neurketa.

Kontutan izan behar da neurketa hau *kale*-erabilpenaren neurketa izan dela. Leku itxiak, hortaz, neurketa honetatik kanpo geratu dira: tabernak, dendak, etxeak, lantegiak, ikastetxeak, edotariko lokalak,... Neurketa 10.000 biztanletik gorako herri guztietan egin zen, lehen aipaturiko salbuespenekin. Izan ere, guztira 47 herri dauzkagu —Zumarraga eta Urretxu herri gune bakartzat harturik—. Guzti horien artean 2.010.500 biztanle biltzen dute: Euskal Herri guztiko biztanleriaren % 69,57. Hasierako asmoa 2.010.500eko multzo horren % 20a neurtzea zen, eta guztira 329.860 lagun izan dira neurtuak, 10.000 biztanletik gorako herri guztien arteko biztanleria osoaren % 16,41eko batez bestekoa beraz. Dena den, datuok prozesatzerakoan % 20ra ponderatu ditugu zegokien kasu guztietan. 47 herri hauetan guztira 368.380 euskaldun biltzen da (Baionan izan daitezkeenak zenbatu gabe), Euskal Herriko euskaldunen %58,98 gutxi gorabehera. Gutxi gora behera diogu, Lapurdiko kostaldeko datuak kasu batzutan ez daudelako (Baiona, Angelu eta Miarritze) eta gainerakoe-tan Pedro de Yrizarrek 1973an argitaraturiko datuak besterik ez ditugulako.

Herri bakoitzean aurrez finkaturiko ibilbide batetan zehar ibili ziren neurtzaileak, bikote bakoitzak bere ibilbidea zuelarik. Ibilbide hauek herriko kalerik jende-tsuenak eta, ahal zelarik, giro desberdineko inguruak zeharkatu zituzten: erosketa-lekuak, taberna inguruak, pasealekuak, haurren jolas-tokiak,... Bikote bakoitzak behin eta berriz egin zuen bere ibilbidea neurtaldi bakoitzak iraun bitartean. Herri guztietako ibilbide horien planoak EKBko bulego nagusietan daude gordेरik.

Neurketaren EKBko batzorde antolatzaileak orri bana eman zien bikote neurtzaile guztiei, nork bere herrian neurtaldi bakoitzean neurtu beharreko haur, gazte, heldu eta zahar kopuruekin, hiru neurtaldien buruan (asteazken arratsaldekoa, larunbata goizekoa eta arratsaldekoa) eta

herriko bikote guztien artean adin-talde bakoitzaren totalaren % 20a neurturik izan zedin. Bikoteek kalean bost laguneko talde bat elkarrekin ikusi eta horietariko bat erdaraz ari zelarik bost lagun apuntatzen zuten erdarazko zutabeen. Haur bat bere gurasoekin euskaraz entzunda, makiltxo bat apuntatzen zuten haurren euskarazko zutabeen eta bi helduen euskarazkoan. Kasu guztietan entzundako pertsonaren adina sumatu egin behar izan zuten neurtzaileek. Neurtzaileekin hitz egiten zutenak eta zalantzazko kasuak ez ziren apuntatu behar. Ikus hurrengo orrialdean neurketarako erabili den fitxa-eredua.

Azkenik, esan dezagun aldez aurretik ez zela neurketaren berri eman euskaltzale euskaldunak abisaturik egon ez zitezen eta erabilpenaren neurketaren emaitza erreala izan zedin.

Hego Euskal Herrirako erabili ziren datuak 1986ko udal-errolakoak dira. Iparralderako, neurketa garaian zeuden azken datuak 1982an INSEE (Institut National de la Statistique et des Etudes Economiques) bilduriko zentsukoak dira. Kontuan harturik neurketa kasu batean hiru eta bestean zazpi urte beranduago egina dagoela, ezinbestean jasan beharreko desfase bat dago taulatan erabili diren guztizko biztanleriaren datuak eta kale-erabilpenak eman dituenen artean. Hegoalderako euskaldunen eta euskararen erabilpenaren portzentaien arteko desfasea ere hiru urtetakoa da; Iparraldeko desfasea izugarri areagotzen da, lehenago ere esan dugun bezala, dauzkagun ezagutza-datu bakarrak 1972koak direlako.

*«Kontutan izan
behar da
neurketa hau
kale-erabilpena-
ren neurketa
izan dela. Leku
itxiak, hortaz,
neurketa
honetatik kanpo
geratu dira:
tabernak,
dendak, etxeak,
lantegiak,
ikastetxeak,
edotariko
lokalak,...»*

HERRIA: _____ EGUNA: _____
IBILBIDEA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

HAURRAK ... - 14 Urte		GAZTEAK 15 - 24 Urte		HELDUAK 25 - 64 Urte		ZAHARRAK 65 - ...	
Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.
Guztira	Guztira	Guztira	Guztira	Guztira	Guztira	Guztira	Guztira
GUZTIRA		GUZTIRA		GUZTIRA		GUZTIRA	

Taulak irakurtzeko ohar orokorrak:

- Datuak multzoka ageri diren kasu guztietan 10.000 biztanletik gorako herriak soilik hartu dira kontutan. Gorago adierazi den bezala, Hegoaldeko herri guztiak hartu dira —baita Burlata, Leioa eta Tafalla, beren tipologietako datuak ezarri ondoren—, baina Ipar Euskal Herriaren kasuan neurturiko herriak —10.000tik gorakoak beti ere— besterik ez dira erabili.
- *Eusk.*: multzo horri dagokion euskaldunen (euskara dakitenen) portzentaia; hots, euskararen ezagutza-portzentaia.
- *Erab.*: kalean euskaraz ari direnen portzentaia, hizketan ari diren guztiekiko.
- *Ind.*: ezagutza (*eusk.*) eta erabilpen (*erab.*) portzentaien arteko indizea, Orik 1 bitartekoa. Indize honek erabileraren portzentaia denak (taula guztietakoak) gonbaragarri bihurtzen ditu.

10.000 biztanletik gorako herrietako datuak herriz herri

Oharrak:

- Zumarraga eta Urretxuko datuak batean doaz, herri gunek bakartzat hartu ditugulako.
- Angelu, Burlata, Leioa, Miarritze eta Tafallako daturik ez da agertzen gorago adierazitako arrazoiengatik.
- Iparraldeko herrien kasuan ez dago adinez adineko ezagutza-daturik, eta Baionaren kasuan ezta datu totalik ere. Kasu guzti horietan, noski, ezin izan da indizerik atera.

IZENA	HAURRAK			GAZTEAK		
	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
ARABA						
GASTEIZ	9,01	2,7	0,30	7,47	2	0,27
LAUDIO	16,90	4,9	0,29	10,67	2,6	0,24

BIZKAIA

BARAKALDO	2,81	0,7	0,25	3,57	0,8	0,22
BASAURI	9,20	1,9	0,21	8,07	0,6	0,07
BERMEO	68,53	44	0,64	70,36	7,1	0,10
BILBO	10,81	3	0,28	10,31	2,3	0,22
DURANGO	34,03	15,6	0,46	31,53	4,1	0,13
ERANDIO	9,09	1,8	0,20	9,89	0,8	0,08
ERMUA	13,52	9,6	0,71	12,64	1,3	0,10
GALDAKAO	24,20	9,8	0,40	21,36	2	0,09
GERNIKA	68,68	35	0,51	59,70	9,5	0,16
GETXO	16,98	3,4	0,20	14,82	1,9	0,13
MUNGIA	59,60	20,2	0,34	52,49	6,2	0,12
ONDARROA	74,19	72,8	0,98	77,97	59,1	0,76
PORTUGALETE	8,20	0,8	0,10	6,59	1,1	0,17
SANTURTZI	4,77	1,6	0,34	5,74	0,5	0,09
SESTAO	7,14	1,2	0,17	6,22	1	0,16
TRAPAGARAN	12,33	23,8	1,93	5,32	1,6	0,30
ZORNOTZA	47,48	46	0,97	37,67	37,2	0,99

GIPUZKOA

ANDOAIN	40,67	17,2	0,42	41,26	7,2	0,17
ARRASATE	55,34	39,1	0,71	40,67	9,6	0,24
AZKOITIA	73,10	75,4	1,03	74,85	68,4	0,91
AZPEITIA	88,40	89	1,01	87,53	72,2	0,82
BEASAIN	60,48	35,4	0,59	52,96	16	0,30
BERGARA	75,99	67,9	0,89	61,73	23,7	0,38
DONOSTIA	33,23	20,5	0,62	27,03	7,9	0,29
EIBAR	48,22	20	0,41	36,34	3,2	0,09
ELGOIBAR	58,49	37,4	0,64	52,13	12,2	0,23
ERRETERIA	25,07	16,7	0,67	20,54	4,4	0,21
HERNANI	53,20	44,3	0,83	42,00	9	0,21

HELDUAK			ZAHARRAK			GUZTIRA		
EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
4,67	2	0,43	5,09	0,7	0,14	5,94	2	0,34
8,33	1,8	0,22	12,72	1,5	0,12	10,56	2,5	0,24
2,24	0,4	0,18	2,18	0,5	0,23	2,53	0,5	0,20
7,27	0,7	0,10	15,95	1	0,06	8,56	0,9	0,11
74,68	43,4	0,58	81,77	77,1	0,94	74,23	42,9	0,58
7,70	2,4	0,31	11,18	2,4	0,21	9,07	2,5	0,28
37,10	8,2	0,22	56,42	24	0,43	37,90	10,6	0,28
11,08	1	0,09	29,83	0,4	0,01	12,54	1	0,08
13,75	6,9	0,50	30,45	10,3	0,34	14,50	6,5	0,45
25,34	5,8	0,23	53,33	15,8	0,30	27,08	6,9	0,25
65,19	37,2	0,57	78,22	53,1	0,68	66,81	34,8	0,52
10,00	2,7	0,27	17,34	3,7	0,21	12,92	2,8	0,22
58,18	15,2	0,26	77,37	33,8	0,44	59,77	16,9	0,28
76,59	70,2	0,92	88,13	89,7	1,02	77,99	70,9	0,91
4,48	0,5	0,11	4,21	0,5	0,12	5,42	0,6	0,11
3,63	0,7	0,19	2,84	0,3	0,11	4,12	0,8	0,19
3,13	0,3	0,10	3,28	0	0,00	4,29	0,5	0,12
2,66	0,5	0,19	1,99	0,4	0,20	4,55	4,8	1,05
44,21	36,2	0,82	67,80	69,8	1,03	46,13	41,7	0,90
37,97	11,1	0,29	57,80	38,6	0,67	41,03	14,2	0,35
37,70	14,3	0,38	52,43	27,3	0,52	42,64	19,3	0,45
75,69	69,7	0,92	87,86	84,5	0,96	76,94	72,5	0,94
85,43	67,5	0,79	89,06	76	0,85	86,75	73,4	0,85
41,54	15,4	0,37	50,33	25,3	0,50	47,44	20,1	0,42
60,92	23,3	0,38	79,72	62,5	0,78	65,76	35,7	0,54
22,81	8,3	0,36	33,74	10	0,30	26,70	10,3	0,39
39,83	8,9	0,22	64,23	40,2	0,63	44,09	14,3	0,32
47,54	15	0,32	72,58	39,5	0,54	52,98	21	0,40
21,65	5,9	0,27	35,99	9,3	0,26	23,48	7,9	0,34
40,24	18,3	0,45	55,76	21,3	0,38	44,34	21,3	0,48

IZENA	HAURRAK			GAZTEAK		
	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
HONDARRIBIA	62,38	29,9	0,48	58,37	19,7	0,34
IRUN	21,37	6,3	0,29	19,03	2	0,11
LASARTE	29,21	14,3	0,49	26,92	3,4	0,13
LEGAZPIA	61,95	35,2	0,57	43,22	15,6	0,36
OÑATI	85,78	65,4	0,76	75,96	32,4	0,43
PASAIA	25,43	22,7	0,89	21,01	6,7	0,32
TOLOSA	71,87	37,6	0,52	57,48	18,9	0,33
ZARAUZ	73,49	47,9	0,65	66,85	28	0,42
ZUM.- URRETXU	48,27	28,6	0,59	33,7	5,3	0,16

LAPURDI

BAIONA	3,3	0,5
D. LOHITZUNE	2	3,1
HENDAIA	26,4	1,9

NAFARROA

ANTSOAIN	5,44	0,6	0,11	3,09	0,7	0,23
BARAÑAIN	7,53	4,5	0,60	3,87	0	0,00
IRUÑEA	8,26	2,1	0,25	5,77	0,9	0,16
LIZARRA	18,48	28,8	1,56	9,11	8	0,88
TUTERA	0,33	0,4	1,20	0,50	0	0,00

Euskal Herri eta Hego Euskal Herri mailako datuak

- Euskal Herri mailako adinez adineko ezagutza-daturik —eta ondorioz, indize-rik— ez da ageri Iparraldeko kasuan horrelakorik ez dagoelako.
- Euskal Herri mailako guztizko datuetan, ezagutzaren portzentaian herri guztiak hartu ditugu kontutan Baiona salbu, bertako daturik ez dagoelako. Hala ere, erabileraren portzentaia Baiona ere kontutan hartuz aterea dago.

	Haurrak			Gazteak		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
Euskal Herria		11,24			5,05	
Hego Euskal Herria	20,50	11,37	0,55	18,05	5,16	0,29

HELDUAK			ZAHARRAK			GUZTIRA		
EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
53,95	27,7	0,51	68,84	45,5	0,66	57,96	28,9	0,50
20,17	2,8	0,14	31,18	4,6	0,15	21,57	3,5	0,16
25,93	6,8	0,26	44,30	23,5	0,53	28,03	8,8	0,31
40,10	14,7	0,37	63,75	34,6	0,54	46,24	20,1	0,43
71,32	28,5	0,40	85,67	62,7	0,73	76,16	39,8	0,52
20,46	9,3	0,45	34,24	19,7	0,58	23,12	12,1	0,52
50,30	20	0,40	60,39	29,2	0,48	55,98	23,9	0,43
65,33	34,8	0,53	75,33	55,1	0,73	68,17	38,5	0,56
31,39	8,6	0,27	49,92	16,5	0,33	36,31	12,1	0,33

2			5,4			2,6		
5,2			4,7			30	4,2	0,14
9,8			6,4			16,91	11,2	0,66

5,26	1,1	0,21	4,41	1,8	0,41	4,68	0,9	0,19
3,93	1	0,25	3,85	0	0,00	4,98	2	0,40
5,37	1,4	0,26	5,82	0,6	0,10	6,02	1,3	0,22
10,34	2,6	0,25	4,26	0	0,00	10,78	8,9	0,83
0,83	0,6	0,72	0,73	0	0,00	0,67	0,4	0,59

Helduak			Zaharrak			Guztira		
Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
	6,53			10,71		18,07	7,62	0,42
16,62	6,60	0,40	23,66	10,97	0,46	18,38	7,72	0,42

Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian euskaraz egiten den guztiarekiko adin-talde bakoitzaren pisua ondoko grafikoetan ikus daiteke:




Herrialdez herrialdeko datuak

Oharra:

- Lapurdiko kasuan ez dago adinez adineko ezagutza-daturik, gorago azaldu denez. Guztizko datuak ematerakoan, Baionako ezagutza-datu orokorrik ere ez dagoenez, ezagutzaren portzentaiak Hendaia eta Donibane Lohitzuneko euskaldunak soilik kontutan hartuz atera ditugu, baina Hendaia, Donibane eta Baionako biztanlegoaren totalarekiko. Erabileraren datuak Baiona ere kontuan harturik eman dira.

	Haurrak			Gazteak		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
Araba	9,75	2,92	0,30	7,81	2,07	0,27
Bizkaia	15,03	6,91	0,46	13,79	3,35	0,24
Gipuzkoa	43,39	27,99	0,65	36,17	11,61	0,32
Lapurdi		7,20			1,23	
Nafarroa	7,78	3,80	0,49	5,06	1,11	0,22

Herrialdeka euskaraz egiten den guztiarekiko adin-talde bakoitzaren pisua ikustearren:



Helduak			Zaharrak			Guztira		
Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
5,03	1,98	0,39	5,66	0,74	0,13	6,38	2,04	0,32
12,27	4,96	0,40	17,93	8,02	0,45	13,67	5,39	0,39
34,33	13,77	0,40	47,50	23,53	0,50	37,77	17,02	0,45
	3,92			5,36		8,31	4,34	0,52
5,02	1,30	0,26	5,15	0,55	0,11	5,57	1,71	0,31

Tamainaren arabera datu-taularentzako oharrak

- Taula honetan herriak beren tamainaren arabera bildu ditugu eta emaitzak orokorrean eman. 10.000 eta 25.000 biztanle tarteko multzoa 4-* deitu dugu; 25.000 eta 50.000 tartekoa 5-*; 50.000 eta 100.000 bitartekoa 6-*; eta 100.000tik gorakoa 7-*. Izan ere, neurketa honetan neurtu ez diren arren, beste batetan egitekotan 1.000 biztanle bitarteko herrien tipologia 1-* deitu dugu, 1.000-5.000 artekoa 2-*, eta 5.000-10.000koa 3-*.
- (a) batez markaturik, Hegoaldeko herriak soilik kontutan hartuz eman ditugu datuak, (b) batez Ipar Euskal Herrikoak ere barne direlarik. Ipar Euskal Herrian ez dago 50.000 biztanletik gorako heririk.
- Iparraldeko datuak ere ageri diren zutabeetan —(b) batez markaturikoetan, alegia— ez dago adinez adineko ezagutza-daturik, gorago adierazi bezala: 4-* tipologia Hendaia eta Donibane Lohitzune bildurik doazenez, adinez adinekorik ez baina ezagutza-datu orokorrak badaude. 5-* tipologiaren barne Baiona dago, eta bertako ezagutza-datu totalik ere ez dagoenez, ez dugu ezagutza-datu orokorrik eman.

Honakoak dira tipologia bakoitzak biltzen dituen herriak:

- 4-*: Andoain, Antsoain, Azkoitia, Azpeitia, Barañain, Beasain, Bergara, Bermeo, Donibane Lohitzune, Elgoibar, Ermua, Gernika, Hendaia, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Laudio, Legazpia, Lizarra, Mungia, Ondarroa, Oñati, Pasaia, Tolosa, Trapagaran, Zarautz, Zornotza eta Zumarraga-Urretxu.
- 5-*: Arrasate, Baiona, Durango, Eibar, Erandio, Erreterria, Galdakao, Sestao eta Tuteria.
- 6-*: Basauri, Getxo, Irun, Portugalete eta Santurtzi.
- 7-*: Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñea.

Ezagutzaren arabera datu-taularentzako oharrak

- Taula honetan herriak euskararen ezagutza-tasaren arabera bildu ditugu. Euskalduntzat erroldan 'euskaldun' gisa datozenak soilik hartu ditugu kontutan, 'ia-euskaldunak' alde batera utzi ditugu gorago adierazi den moduan. Euskaldunen tasa %0 eta %10 tartean daukaten herriak *-1 izeneko tipologia bildu ditugu; %10 eta 25 bitartekoak *-2 tipologian; %25-50 *-3 tipologian; %50-75 artekoak *-4 tipologian; azkenik %75-90 *-5 tipologian. Nahiz eta 10.000 biztanletik gorako herrien artean %90 euskaldun baino gehiago duenik ez izan, egunen batetan izan litezkeen %90-100

bitartekoentzat (eta hurrengo neurketa batetan neurtuko balira, 10.000 biztanletik beherako herri euskaldunentzat) gorde dugu *-6 tipologia.

- Aurreko taulan bezelaxe, (a) zutabeen hegoaldeko herriak soilik kontutan harturik eman ditugu datuak eta (b) zutabeen Ipar Euskal Herrikoak ere barne direlarik. Iparraldean ez dago *-4 eta *-5 tipologiaetako herririk.
- Lehen ere adierazi bezala, Iparraldeko datuak ageri diren zutabeetan —(b)z markaturikoetan— ez dago adinez adineko ezagutza-daturik; orokorrak besterik ez daude. Baionako ezagutza-datu totalik era ezagutzen ez den arren, ez dirudi inongo kasutan %10 baino altuagoa izango denik; *-1 tipologian sartu dugu beraz. Horregatik, *-1 (b) zutabeen ez dugu ezagutza-datu orokorrik eman; erabilpenaren portzentaia ordea, Baiona ere barne delarik doa.

Hona hemen tipologia bakoitzaren barne dauden herriak:

- *-1: Antsoain, Baiona, Barakaldo, Barañain, Basauri, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran eta Tuteria.
- *-2: Erandio, Ermua, Erreterria, Getxo, Hendaia, Irun, Laudio, Lizarra eta Pasaia.
- *-3: Andoain, Arrasate, Beasain, Donibane Lohitzune, Donostia, Durango, Eibar, Galdakao, Hernani, Lasarte-Oria, Legazpia, Zornotza eta Zumarraga-Urretxu.
- *-4: Bergara, Bermeo, Elgoibar, Gernika, Hondarrabia, Mungia, Tolosa eta Zarautz.
- *-5: Azkoitia, Azpeitia, Ondarroa eta Oñati.

Tipologiakako datu-taularentzako oharrak

- Taula hauetan 'tamaina' eta 'euskararen ezagutza' aldagaiak gurutzatu egin ditugu herriak multzoka biltzeko. Orain arteko tauletan tamainaren arabera 4 tipologia erabili ditugunez eta ezagutzaren arabera 5, guztira 20 tipologia desberdin behar genituzke hemen; baina tipologia batzuk herririk ez daukatenez eta 7-3 tipologian Donostia besterik ez dagoenez, guztira 11 tipologia desberdin dakartzagu hona.
- Aurreko tauletan erabili diren ikurren arteko konbinaketak erabili ditugu hemen: gorago, 4-* ikurrarekin 10.000-25.000 biztanle bitarteko herriak bildu baditugu eta *-1 ikurraz euskaldunen tasa %0 eta 10 tartean daukaten herriak, 4-1 tipologiak, ondorioz, 10.000-25.000 biztanle eta % 0-10 euskaldun daukaten herriak bilduko ditu.

TAMAINAREN ARABERAKO DATUAK

	Haurrak			Gazteak		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
4-*: 10-25000 biztanle (a)	40,85	29,62	0,73	37,55	14,46	0,39
4-*: 10-25000 biztanle (b)		28,85			13,96	
5-*: 25-50000 biztanle (a)	24,44	12,52	0,51	20,69	3,17	0,15
5-*: 25-50000 biztanle (b)		11,24			2,82	
6-*: 50-100000 biztanle	12,65	2,86	0,23	11,04	1,28	0,12
7-*: 100000tik gora biztanle	12,35	5,13	0,42	10,94	2,74	0,25

EZAGUTZAREN ARABERAKO DATUAK

	Haurrak			Gazteak		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
*-1 % 0-10 euskaldun (a)	8,21	2,56	0,31	7,29	1,49	0,20
*-1 % 0-10 euskaldun (b)		2,58			1,46	
*-2 % 10-25 euskaldun (a)	18,32	9,53	0,52	15,71	3,00	0,19
*-2 % 10-25 euskaldun (b)		10,12			2,96	
*-3 % 25-50 euskaldun (a)	39,22	23,50	0,60	31,99	8,30	0,26
*-3 % 25-50 euskaldun (b)		22,82			8,16	
*-4 % 50-75 euskaldun	68,08	40,75	0,60	60,55	16,00	0,25
*-5 % 75-90 euskaldun	81,12	76,92	0,95	79,49	59,13	0,74

TIPOLOGIAKAKO DATUAK

	Haurrak			Gazteak		
	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
4-1: 10-25000 bizt./% 0-10 eusk.	7,80	7,51	0,96	3,88	0,83	0,21
4-2: 10-25000 bizt./% 10-25 eusk.(a)	17,33	15,23	0,88	13,84	4,23	0,31
4-2: 10-25000 bizt./% 10-25 eusk.(b)		16,32			4,04	
4-3: 10-25000 bizt./% 25-50 eusk.(a)	46,48	30,40	0,65	38,47	12,39	0,32
4-3: 10-25000 bizt./% 25-50 eusk.(b)		27,60			11,61	
4-4: 10-25000 bizt./% 50-75 eusk.	68,08	40,75	0,60	60,55	16,00	0,26
4-5: 10-25000 bizt./% 75-90 eusk.	81,12	76,92	0,95	79,49	59,13	0,74
5-1: 25-50000 bizt./% 0-10 eusk.(a)	4,01	0,76	0,19	4,12	0,64	0,16
5-1: 25-50000 bizt./% 0-10 eusk.(b)		1,71			0,60	
5-2: 25-50000 bizt./% 10-25 eusk.	19,01	10,94	0,58	16,85	3,14	0,19
5-3: 25-50000 bizt./% 25-50 eusk.	39,68	20,62	0,52	32,63	4,61	0,14
6-1: 50-100000 bizt./% 0-10 eusk.	7,42	1,42	0,19	6,79	0,76	0,11
6-2: 50-100000 bizt./% 10-25 eusk.	18,69	4,52	0,24	16,53	1,94	0,12
7-1: 100000 < bizt./% 0-10 eusk.	8,70	2,41	0,28	7,83	1,74	0,22

Helduak			Zaharrak			Guztira		
Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
37,82	19,45	0,51	53,33	36,46	0,68	40,06	22,36	0,56
	18,89			33,87		39,25	21,60	0,55
22,16	5,63	0,25	35,96	15,53	0,43	23,93	7,59	0,32
	5,15			13,37			6,88	
9,09	1,56	0,17	15,14	2,31	0,15	10,69	1,82	0,17
8,61	2,91	0,34	12,38	3,16	0,26	10,16	3,28	0,32

Helduak			Zaharrak			Guztira		
Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
5,46	1,56	0,29	7,35	1,49	0,20	6,46	1,68	0,26
	1,56			1,49			1,71	
14,48	3,88	0,27	25,11	6,03	0,24	16,73	5,02	0,30
	4,07			6,05		16,73	5,24	0,31
30,33	10,61	0,35	44,64	19,74	0,44	33,85	13,52	0,40
	10,46			18,99		33,72	13,23	0,39
60,20	28,15	0,47	74,10	50,61	0,68	63,39	31,35	0,49
77,60	59,17	0,76	87,69	77,87	0,89	79,83	64,64	0,81

Helduak			Zaharrak			Guztira		
Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.	Eusk.	Erab.	Ind.
4,11	0,86	0,21	4,39	0,76	0,17	4,89	2,43	0,50
12,54	5,60	0,45	21,49	9,34	0,43	14,50	7,38	0,51
	5,68			8,86		14,50	7,76	0,54
36,76	15,63	0,43	55,64	32,38	0,58	40,58	19,34	0,48
	14,66			26,87		39,46	17,76	0,45
60,20	28,15	0,47	74,10	50,91	0,69	63,39	31,35	0,49
77,60	59,17	0,76	87,69	77,87	0,89	79,83	64,64	0,81
	1,42	0,42	2,21	0,00	0,00	2,40	0,47	0,20
	1,01			2,66			1,32	
17,81	4,12	0,23	33,69	5,99	0,18	19,50	5,40	0,28
35,28	9,25	0,26	57,98	29,40	0,51	38,30	12,82	0,33
	5,10	0,12	7,27	0,59	0,08	6,01	0,79	0,13
14,19	2,74	0,19	23,36	4,10	0,18	16,47	3,10	0,19
5,82	1,84	0,32	7,81	1,49	0,19	6,87	1,87	0,27

- Beste tauletan bezala hemen ere, (a) batez markatu ditugu Hegoaldeko herriak bakarrik aintzat hartuz osatzen diren datuak eta (b) batez Iparraldekoak ere barnean dituztenak. Hauetan, lehen ere esan bezala, ezagutza-datuak orokorrean soilik eman ditugu, eta ez adin taldeka. 5-1 tipologian Baiona dagoenez eta Baionako euskararen ezagutza-daturik ez dugunez, ezagutza-portzentaia orokorrik ez dugu eman (b) zutabeen.

Hauetxek dira tipologia bakoitzak biltzen dituen herriak:

- 4-1: Antsoain, Barañain eta Trapagaran.

10.000 biztanletik beherako hainbat herritako datuak

IZENA	HAURRAK			GAZTEAK		
	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
ANOETA	73,82	56,1	0,76	58,93	20,9	0,35
BELAUNTZA	96,55	77,6	0,80	95,56	66,7	0,70
ELANTXOBE	89,23	100	1,12	98,57	78,6	0,80
IRURA	86,17	61,5	0,71	71,65	64,7	0,90
LEZO	43,66	45,3	1,04	45,41	37,2	0,82
LOIU	35,67	7,5	0,21	32,89	2,1	0,06
MUTRIKU	80,91	66,4	0,82	88,15	54,9	0,62
OTXANDIO	87,90	52,8	0,60	72,73	4,8	0,07
OIARTZUN	79,84	55,9	0,70	75,35	37,5	0,50
AGURAIN	14,91	13,7	0,92	7,06	10,9	1,54
BILLABONA	71,64	43,3	0,60	61,54	14,4	0,23
ZARATAMO	34,72	20,8	0,60	27,19	25	0,92
ATHARRATZE		24,7			46,3	
MAULE		3,3			10,9	
DONAPALEU		0,8			13,8	

- 4-2: Ermua, Hendaia, Laudio, Lizarra eta Pasaia.
- 4-3: Andoain, Beasain, Donibane Lohitzune, Hernani, Lasarte-Oria, Legazpia, Zornotza eta Zumarraga-Urretxu.
- 4-4: Bergara, Bermeo, Elgoibar, Gernika, Hondarribia, Mungia, Tolosa eta Zarautz.
- 4-5: Azkoitia, Azpeitia, Ondarroa eta Oñati.
- 5-1: Baiona, Sestao eta Tuteria.
- 5-2: Erandio eta Errenteria.
- 5-3: Arrasate, Durango, Eibar eta Galdakao.
- 6-1: Basauri, Portugalete eta Santurtzi.
- 6-2: Getxo eta Irun.
- 7-1: Barakaldo, Bilbo, Gasteiz eta Iruñea.

HELDUAK			ZAHARRAK			GUZTIRA		
EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.	EUSK.	ERAB.	INDIZ.
58,17	42,8	0,74	79,33	66,7	0,84	63,06	43,7	0,69
88,68	68,6	0,77	87,80	78	0,89	91,09	71	0,78
94,01	89,5	0,95	96,48	96,5	1,00	94,65	91,3	0,96
76,16	64,3	0,84	88,12	65,3	0,74	78,60	64,1	0,82
44,19	43,4	0,98	64,99	54,2	0,83	46,24	43,8	0,95
49,77	0,7	0,01	81,42	20,4	0,25	51,83	5,6	0,11
84,76	74,6	0,88	88,45	78,7	0,89	85,34	70,5	0,83
70,66	30,9	0,44	93,30	63,9	0,68	76,76	34,4	0,45
71,79	49	0,68	85,67	74,3	0,87	75,37	51	0,68
6,16	2,1	0,34	6,35	0	0,00	7,82	5,5	0,70
61,68	19,7	0,32	78,36	30,5	0,39	65,30	24,6	0,38
37,51	15,6	0,42	62,44	26,5	0,42	38,15	19,6	0,51
	63,7			66,5		37,16	56,3	1,52
	8,4			21,6		21,7	10,8	0,5
	51,2			74,9		58,87	43,6	0,74

- Taula honetako herri hauek garai berean erabaki zuten neurketa egitea nahiz eta 10.000 biztanletik beherakoak izan.
- 10.000 biztanletik gorako herrietarako bezalaxe, Ipar Euskal Herrian dauzkagun ezagutza-datu bakarrak orokorrak dira, eta Iparraldeko hiru herri horien kasuan halaxe ematen ditugu.